Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

# DOCENTIAZ 16

# IRAKASKUNTZA JARDUERA EBALUATZEKO PROGRAMA

## Irakasleentzat erabilera-eskuliburua

Ebaluazio Zerbitzua / Servicio de Evaluación

Gradu eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetza /
Vicerrectorado de Grado y Transformación Digital

2026ko martxoa

1. **EHUren EGOITZA elektronikoan** sartu: https://egoitza.ehu.eus




2. **Ziurtagiri digitalarekin edo BAKQrekin** identifikatu.



3. Hizkuntza aldatzeko **Nire Profila** atalean sartu behar da, eta bertan, izapideetarako hizkuntza aldatu.




4. Profil honetan ere adierazi dezakegu gure **espedientean ematen diren aldaketez jakinarazpenak** jaso nahi ditugula (**mezu elektroniko baten bidez**).



5. **Prozeduren eta zerbitzuen katalogoa** aukeratu, eta bertan **Prozeduren katalogoa**.




6. Ondoren, **Profiletan, Irakasleak eta Ikertzaileak** karpetan sakatu.



7. **Docentiaz Programaren 16. deialdian** sakatu.




8. Ondoren, **Eskaerarako Alta** botoian sakatu.



9. **Sortu espediente berri bat** botoian sakatu.




10. Gure datuak dituen pantaila batera sartuko gara, eta **Hurrengoa** botoia sakatuko dugu (Tramitazioa egiteko hizkuntza hemen aukeratzen da)**.**



11. **Ebaluazio epean (2020/21 – 2024/25) emandako irakasgai bat** aukeratu behar da**.**




12. **Ondoren, DOCENTIAZ programan ebaluatzen diren hiru dimentsioei dagozkien erlaitz batzuk agertuko dira.** Informazioa kontsultatzeko, fitxen artean nabigatu beharko da.

**0 dimentsioari dagokion erlaitzean, GAURen esteka baten bidez eskuratuko da informazioa.**



13. **1. Dimentsioan irakasgaiaren ikasturtea eta hizkuntza aukeratu behar dira**. Gainera, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua nola burutu den azaldu behar da eta irakasgai horretan egindako hobekuntzak azaldu behar dira.



⊘ DOKUMENTAZIOA GEHITZEA
⊘ SINATU ETA AURKEZTU

ESKATZAILEAREN BESTE DATU BATZUK | 0 DIMENTSIOA | 1. DIMENTSIOA | 2. DIMENTSIOA | 3. DIMENTSIOA 1/3 | 3. DIMENTSIOA (2/3) | 3. DIMENTSIOA (3/3) | ESKAERAREN DATUAK | DATU PERTSONALEN BABESA

IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

*1. Dimentsioaren helburua:*

Irakaskuntza-plangintzaren kalitatea eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan eta IKD i3 ereduan ezarritako jarraibideekin bat datozen baloratzea.

Dimentsio honetan ebaluatzen dira eskatzaileak aurkezturiko Ikaslearen Gida (1.1 Dimentsioa) eta Ikaskuntza Jarduera (1.2 Dimentsioa).

IKASLEAREN GIDA ETA IKASKUNTZA JARDUERA

Ikaslearen Gida eta Ikaskuntza Jarduera dokumentuak nahitaezkoak dira, eta eskaera hau bete ondoren aurkeztu behar dira, **Dokumentazioa gehitzea** atalean.

**GARRANTZITSUA *:**

Ikaslearen Gida eta Ikaskuntza Jarduera dokumentuetan adierazi behar da zein ikasturteri dagozkion.

Ikasturtea berbera izango da bi dokumentuetan, eta deialdiaren barruan dagoen eta eskatzaileak irakasgaia eman duen ikasturte bat izango da.

Hizkuntza berean idatziko dira Ikaslearen Gida eta Ikaskuntza Jarduera, eta bi dokumentuetan adierazitako ikasturtean irakasleak irakasgaia eman zuen hizkuntza izango da.

* **Baldintza hau betetzen ez bada ezingo da parte hartu**

Kontuan harturik aurrekoa, adierazi Ikaslearen Gidaren eta Ikaskuntza Jardueraren ikasturtea eta hizkuntza.

Ikasturte 2021/22 ✔ Hizkuntz Gaztelania ✔



Kontuan harturik aurrekoa, adierazi Ikaslearen Gidaren eta Ikaskuntza Jardueraren ikasturtea eta hizkuntza.

Ikasturte 2021/22 ✔ Hizkuntz Gaztelania ✔

IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUA HOBETZEA

Irakasleek etengabeko hobekuntza-prozesu batean inplikatuta egon behar dute, ikasturtean zehar sistematikoki jasotzen dituzten datuetan oinarrituta. Datu horiei esker finka ditzakete hurrengo ikasturteetarako hobekuntza helburuak.

Azal ezazu nola hobetu duzun zure ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua.

Aipa itzazu DOCENTIAZ programaren deialdi honen barruan ezarritako hobekuntza ekintzak.

Nahi izanez gero, 2. Dimentsioan lortutako emaitzak testuinguruan jarri (arrakasta tasak eta/edo Ikasleentzako Iritzi Inkestan jasotako emaitzak).

(Gehienez 3.000 karaktere).

14. **2. Dimentsioari** dagokion erlaitzean, **ikasleen iritzi-txostenei** buruz GAURen dauden datuetara sartuko gara, baita hautatutako irakasgaiaren **arrakasta-tasetara** ere.



▶ ESKABIDE-ORRIA
⊘ DOKUMENTAZIOA GEHITZEA
⊘ SINATU ETA AURKEZTU

Euskera ▾

ESKATZAILEAREN BESTE DATU BATZUK | 0 DIMENTSIOA | 1. DIMENTSIOA | 2. DIMENTSIOA | 3. DIMENTSIOA 1/3 | 3. DIMENTSIOA (2/3) | 3. DIMENTSIOA (3/3) | ESKAERAREN DATUAK | DATU PERTSONALEN BABESA

EMAITZAK

*2. Dimentsioaren helburua:*

Emaitzak baloratzea prestakuntza helburuen ikuspegitik.

Horretarako aztertuko dira ikasleen emaitza akademikoak eta irakaslanarekiko gogobetetasun maila.

**Dimentsio hau baloratzeko erabilitako datuak GAURen ikusi eta deskargatu daitezke.**

Aurreko | Hurrengoa | Irten

Versión de Formulario 8

15. **3. Dimentsioko** erlaitzetan, EHUko datu-baseetan **jasota ez dauden merezimenduak** hautatu behar ditugu. Meritu bat hautatzen dugunean, leiho bat irekitzen da merituaren xehetasunak eransteko. Merezimendu bat gehitu daiteke nahi adina aldiz. Merezimenduak sartzean, aurkeztutako merezimenduei (2019/20 – 2023/24) dagozkien ziurtagiriak bukaeran gehituko dira.







16. Merezimenduaren xehetasuna:



17. Merezimendu guztiak gehitu ondoren, pantaila bat agertuko da **eskariaren datuekin**, eta **Hurrengoa** botoian klik egingo dugu.




18. **Datuak babesteko araudia duen pantaila bat agertuko** da, eta **Hurrengoa** botoia sakatuko dugu.



19. Azken pantailan merezimenduen ziurtagiriak erantsi behar dira, bai eta Ikaslearen Gida eta Ikaskuntza Jarduera ere. Gehitu ditugun merezimendu guztiak agertuko dira. Gidan eta Jardueran fitxategi bakarra erantsi daiteke, PDF formatuan. Gainerako merezimenduetan, bat edo gehiago gehitu daitezke. Adibidez, prestakuntza-ikastaro bat baino gehiago badugu, ziurtagiri guztiak PDF bakar batean gehitu ditzakegu, edo bakoitza bere aldetik gehitu.




20. **Ikaslearen Gida** gehitu.



21. Ebidentzia guztiak erantsi ondoren, **eskabidea sinatu eta aurkeztu** behar da. **Sinadura** amaitzean, **Amaitu** botoia sakatu behar da.






22. Espedientean, **erregistroaren ziurtagiri** bat, aurkeztutako **eskabide telematikoa** eta aurkeztutako **merezimenduak** egongo dira.




Eskaera hasi ondoren gorde nahi badugu eta ez bidali, Egoitzako gure profilean gordeko da, Nire espedienteak atalean, ZIRRIBORROA formatuan. Sinatu eta bidali ez bada, zirriborro hori aldatu ahal izango da. Eskabidea sinatu eta bidali ondoren, ezin da aldatu.

Eskabideak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean, nahi adina eskari aurkez daitezke. **Sistemak automatikoki ezabatuko ditu pertsona beraren espediente guztiak, azkena baino lehenagokoak; azken hori ebaluatzeko behar den dokumentazio guztiarekin aurkeztu beharko da, aurrekoak ez baitira onartuko eskaera bat baino gehiago aurkezteagatik**.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ebaluazio Zerbitzuak espediente guztiak aztertuko ditu. **Eskabide bat osatu gabe badago edo akatsak baditu, bost egun balioduneko epea irekiko da akatsak zuzentzeko.**

**Ebaluazio Zerbitzuaren webgunean eta EHUtaula bidez argitaratuko da onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda.** Zuzenketa zergatik eskatzen den ere adieraziko da, eta hori 12 arrazoi[i] posibleetako bati egokituko zaio. **Gainera, gure Egoitza Elektronikoaren profilean Ekintzak- ESKAERA ZUZENDU agertuko zaigu:**




23. Hurrengo leihoan, **Ikaslearen Gida edo Ikaskuntza Jarduera** igo ditzakegu, behin-behinean baztertzeko arrazoiaren arabera, (erabilera-gida honen amaieran agertzen dira hamabi arrazoi posibleak).



24. Eskarian **ATZERA EGITEKO** aukera dago, betiere ebaluazio-lana hasi aurretik.









[i] **Zuzenketak egiteko arrazoiak**

1. Irakaslearen identifikazioa falta da ikaslearen gidan.
2. 1.1 dimentsioan ebaluatzeko erantsi den dokumentua ez dagokio Ikaslearen Gida bati.
3. Ikaslearen Gida ez dagokio Eskaera Telematikoan hautatutako irakasgaiari.
4. Ikaslearen Gida ez dagokio eskaera telematikoan adierazitako ikasturteari
5. Ikaslearen Gidaren hizkuntza ez dator bat eskaera telematikoan adierazitako hizkuntzarekin..
6. Ikaskuntza jardueran irakaslearen izena ez izatea.
7. 1.2 dimentsioan ebaluatzeko erantsi den dokumentua ez dagokio ikaskuntza jarduera bati.
8. Ikaskuntza jarduera ez dagokio eskabide telematikoan hautatutako irakasgaiari.
9. Ikaskuntza jarduera ez dagokio eskabide telematikoan adierazitako ikasturteari.
10. Ikaskuntza jardueraren hizkuntza ez dagokio eskaera telematikoan adierazitako hizkuntzari.
11. Zuzenketa garaiz eta behar bezala ez aurkeztea.
12. Beste batzuk.

EHU